

SORGIÑAK (IV)

Lope de Isasi, Lezo'ko Erretore Jaunak, sorginai buruz egindako txostenaren azken zatia.

Amalau urteko mutil batek autortu eban: euren etxean naparroako neska bat bizi zala, eta bein lau sagar emon eutsazala, eta jan ebazanean, sorgiña gauzez bera lo egoan gelara sartu zala, eta esan eutsala: "neugaz etorri bear dozu".

Eta berak ez ebala izan adorerik ezetz esateko, eta lepoan artuta etxeari inguru bat emonez, aixetan zear landa batera eroan ebala, eta landa orretan lagun asko dantzan egoala, eta danen erdian aker bat ikusten zala, aulki baten gainean jesarrita.

Eta sorgiñak mutilla Akerrari aurkeztu eutsala, eta gero an egon zala beste mutil batzuekaz batera zapoak zaintzen.

AKERRAREN DANTZEA

Eta sorgin guztiak naiko dantza egin ondoren, Akerra bera be dantzan asi zala, eta orduan sorgin guztiak barre andiak egiten ebezala. Eta Akerrak buru gainean bost adar eukazala, eta adarren erdian uiz edo pikeaz egindako kandela bat.

Eta beste gau askotan etorri jakola andra sorgin ori, eta esaten eutsala berari: "Ea, ba-goaz ala?". Eta mutillak ezin eutsala ezezik emon, eta beste gau askotan lepo gainean artu eta olan Akelarrera eroan eta ekarri egiten ebala.

Mutil onen etxean bere arrebak elbarrituta geisorik dagoz, eta bertako osagilleek uste dabe ori sorgiñak egindako kaltea dala.

NAFARROAKO NESKA SORGIÑA

Beste erri baten ogei urteko neska gazte bat sorgiña zan, eta onek autortu eban, baita egia zala, Naparroako gizon sorgin batek bein baten sagar bat emon eutsala, eta berak jan egin ebala, eta gero gau aretan Akelarreko landara eroan ebala, eta an egon zala beste neska batzuekaz batera zapoak zaintzen.

DEABRUAZ ALKARTUTA

Sorgiñak deabruaz alkartuta dagoz (diño Lope de Isasti'k) eta onengandik munduaren azken bazterreran zer jazoten dan, ba-dakie.

Eta onegatik egiten dira asko sorgin: urrunera, Terranobara joan diran euren senar arrantzaleen barriak jakitearren.

Beste batzuk sorgin egiten dira aragiaren atsegiñagatik. Eta bein sorgin-alkarte onetan sartu ezker, oso gatxa da andik urtetea. Eta, ea sorgiñak diran eurai itandu ezker ukatu egiten dabe. Eta geiago be bai, eurak ez dabela sorgiñetan sinisten, lotsa barik esaten dabe.

ABADEAK SORGIÑETAN EZ SINISTEN

Ba-dira emen (diño Isasti Jaunak) abade eta fraile batzuk pulpitutik sorginik ez dala esaten dabenak, eta ez dabela kalterik egiten, eta gitxiago umeak ilten.

Geiago be esaten dabe: sorgiñetan sinistea zorakeri andia dala, eta sorgiñak ez dabela Akelarrera joateko egaz egiten, ezta an dantzarik egiten. Eta sorgiñak ume txiki ildakoen gorpuak jaten dabezala oraindik gitxiago sinistu bear dala.

Onelako gauzak pulpituetatik esatea oso kaltegarri dala nok ez dau ikusten? Bada onela deabruaren indarra geiago zabaltzen da lurralde oneta, eta deabrua onela libre gelditzen da kalte geiago egiteko.

SORGIÑEN AURKA OTOITZA

Emoiguzu, Jauna, deabruaren gaiztakeri guztiak baztertzea, Zu bakarrik, biotz garbiz maite zaiguzan. Jesukristo gure Jaunaren bitartez.

Onela amaitzen dau Lope de Isasti Jaunak, sorgiñari buruz, Iruña'ko gotzainari, Prudentzio Sandobal Jaunari, egindako txostena, 1618.garren urtean.

GOIKOETXEA IÑAKI